

ELKARBIZI PROGRAMA 2025 ARRETA PERTSONALIZATUA ESKATZEKO ARAUDIA	ELKARBIZI PROGRAMA 2025 NORMATIVA PARA LA SOLICITUD DE ATENCIÓN PERSONALIZADA
--	---

ELKARBIZI programa Hondarribiko Gaztelekuaren dinamika integratzailea da eta gizarte-balioetan oinarritutako talde-jarduera egokituak eta irisgarriak eskaintzen ditu.

El programa ELKARBIZI es una dinámica integradora del Gazteleku de Hondarribia que ofrece actividades grupales adaptadas y accesibles basadas en valores sociales.

Zein da programa honen berezitasuna? Dibertsitate funtzional arinak edo ertainak, edo parte hartzeko muga pertsonalak dituzten pertsonen parte hartzea bermatzen da, integratzeko arreta pertsonalizatua eskaintzen baita.

¿Cuál es la peculiaridad de este programa? Que garantiza la participación de personas con diversidades funcionales leves o moderadas, o con limitaciones personales para la participación, al ofrecer una atención personalizada para su integración.

Programak nerabeak gizarte-gaien eremura hurbildu ez ezik, Gaztelekuan banaka parte hartzeko behar adinako autonomiarik ez duten pertsonak talde-jardueretan integratzen direla bermatzea du.

El programa, además de acercar a las/los adolescentes al ámbito de los temas sociales, garantiza la integración de aquellas personas que no tienen autonomía suficiente para participar en las dinámicas grupales del Gazteleku.

Programaren ezaugarriak

1. ELKARBIZI astean behin izaten da, asteartetik ostegunera bitartean.
2. Programak hezitzaile finko bat du plantillan, integratziorako laguntza behar duen pertsona baten (edo batzuen) arreta pertsonalizatua bermatzen duena.
3. Dinamikak gaztelekuaren urteko programa osatzen du, eta bere erabiltzaile guztientzat zabalik dago.
4. Zerbitzuaren ohiko ordutegian garatzen da (17:00etatik 20:00etara, asteartetik ostegunera). Arreta pertsonalizatua eskatzen duen pertsonak parte hartzeko denboraren iraupena zehaztu ahal izango du, bere premien edo gaitasunen arabera.

Características del programa

1. ELKARBIZI es un día a la semana, entre martes y jueves.
2. El programa cuenta con un/a educador/a fijo (en plantilla), que garantiza la atención personalizada de una(s) persona(s) que requiera apoyo para la integración.
3. La dinámica forma parte del programa anual del gazteleku, y está abierto para todas las usuarias/os.
4. Se desarrolla en la franja horaria habitual del servicio (entre las 17:00 y las 20:00, de martes a jueves). La persona que solicite atención personalizada podrá determinar la duración de su tiempo de participación, según sus necesidades o capacidades.

Ratioak eta parte hartzeko behar diren gaitasunak

- Desgaitasun bat duten pertsonen hurrengo ratio hauekin eskainiko zaie laguntza:
 - Desgaitasun arinarekin: 2: 1eko ratioarekin artatuko dira (2 pertsona hezitzaile bakoitzeko)
 - Desgaitasun moderatuarekin: 1:1 ratioaren bidez artatuko dira (hezitzaile bat pertsona bakoitzarentzat).
- Zerbitzuak sustatu eta erraztu egiten du berdinekin parte hartzea antolatutako talde-jardueretan; beraz, eskatzaileak gai izan beharko du beti, eskaintako laguntzarekin, taldearen dinamika jarraitzeko.
- Pertsona hori ez da inoiz Gaztelekuan bakarrik geratuko laguntza-hezitzailearekin, ezta taldetik urrunduko jarduerak irauten duen bitartean. Laguntzaren bitartez autonomia nahikoa izan beharko du beste guztiekin batera jardueraz gozatzeko.

Besteak beste, programa honen helburuetako bat da pertsona horiek sozializatzeko gaitzea eta etorkizunean Gaztelekuan modu autonomoan parte hartzeko trebetasunak hobetzen laguntzea.

Nola eskatu arreta pertsonalizatua

- Izen emateak urtean behin izango dira.
- Adingabea inskribatzeko, gurasoek edo legezko tutoreek Hondarribiko [APP](#)-an altan eman beharko dute, eta profila sortu.
- [ELKARBIZI](#) programak eskatzen dituen datuak bete.
 - Haurra Gaztelekuko erabiltzailea ez bada, izen emate orria ere bete beharko da.

Ratios y capacidades necesarias para participar

- Las personas con discapacidad serán atendidas con los siguientes ratios:
 - Con discapacidad leve: se atenderán con un ratio de 2:1 (2 personas por educador)
 - Con discapacidad moderada: se atenderán mediante ratio 1:1 (un educador para una sola persona).
- El servicio fomenta y facilita la participación con iguales en actividades grupales organizadas, por lo que el/la solicitante deberá ser siempre capaz de seguir la dinámica del grupo con el apoyo ofrecido.
- Esta persona nunca se quedará sola en el Gazteleku con el/la educador/a de apoyo, ni tampoco se alejarán del grupo mientras dure la actividad. Con el apoyo ofrecido deberá tener autonomía suficiente para disfrutar de la actividad junto a todas las demás.

Entre otros, uno de los objetivos de este programa es capacitar para la socialización y ayudar a estas personas a mejorar sus habilidades para participar, en un futuro, de manera autónoma en el Gazteleku.

Cómo solicitar la atención personalizada

- Las inscripciones se abrirán una vez al año.
- Para inscribir al/la menor, las madres y padres o tutores legales deberán darse de alta en la [APP](#) de Hondarribia y crear el perfil.
- Rellenar los datos que el programa [ELKARBIZI](#) solicita.
 - Si el/la menor no es socio/a del Gazteleku, deberá completar la hoja de inscripción y subirla.

- Haurren ezgaitasun edo zerbitzua eskatzeko arrazoitzen dituzten txosten medikuak igo beharko dira.
- On-line egiteaz gain, Gazteen Zerbitzuan (Jabier Ugarte, 6) arreta zuzena eskainiko da izen-emateak izapidetzeko.
- Zerbitzuan parte hartzeko egokitasuna elkarriketa pertsonal baten bitartez erabakiko da.
- Elkarriketara haurren arduraduna edo heldu bat eta haurra bera joan beharko dira.
- Elkarriketaren egunean desgaitasunen txosten medikoak eta agiriak aurkeztu beharko dira, aldez aurretik app-an igo ez badira.
- Ematen diren datuak egiazkoak eta osoak izan beharko dira.
- Kasuaren arabera, hauetako erantzun bat jaso ahalko da:
- EZ DU BEHAR: pertsona hori laguntza berezirik gabe joan daiteke Gaztelekura eta programa guztietan parte hartu.
- GAI: pertsona gai da zerbitzuaren erabiltzailea izateko.
- EZ GAI: pertsonak ez ditu arreta pertsonalizatua jasotzeko baldintzak betetzen.
- Hezitzaileek 20 egunetan gehienez jakinaraziko dute erantzuna.
- Deberán adjuntarse los informes y certificados médicos que justifiquen la solicitud del servicio
- Además de on-line, las inscripciones podrán hacerse de manera presencial en Gazteen Zerbitzua (Jabier Ugarte, 6).
- Para determinar la idoneidad para participar o no en el servicio, se realizará una entrevista personal.
- A la entrevista tendrán que acudir el/la tutora o persona adulta responsable del/la menor y el propio menor.
- El día de la entrevista se deberán presentar los informes médicos y documentos de discapacidad, salvo que previamente se hayan subido a la app.
- Los datos que se faciliten deberán ser verídicos y completos.
- Según el caso, se podrá obtener una de las siguientes respuestas:
- NO REQUIERE: la persona puede acudir al Gazteleku y participar en todos sus programas sin supervisión.
- APTA: la persona cumple con los requisitos y recibirá atención personalizada.
- NO APTA: la persona no cumple requisitos para recibir atención personalizada.
- Los/las educadores/as responderán en un período de 20 días.

Adingabearen arreta-premiak ez du inoiz gaindituko talde profesionalaren laguntza-gaitasuna, zeinaren helburu nagusia izango baita adingabea aisialdiko talde-dinamikan integratzea.

Balorazioan, pertsonaren premiak, espazioaren ezaugarriak eta Gaztelekuko programa hartuko dira kontuan. Une oro,

La necesidad de atención del/la menor nunca superará la capacidad de apoyo del equipo profesional, cuyo objetivo principal será la integración del menor en la dinámica grupal de tiempo libre.

En la valoración se tendrán en cuenta las necesidades de la persona, las características del espacio y el programa del

lehentasuna izango du zentroan diren pertsona guztien segurtasuna eta ongizatea bermatzeak: erabiltzaileena eta langileena. Talde profesionalak erabaki ahal izango du zaintza pertsonal espezifikoak behar dituzten pertsonen parte ez hartzea, edo pertsona bera eta hezitzailea isolatzea dakarten pertsonen parte ez hartzea.

Gazteleku. En todo momento, será prioritario garantizar la seguridad y el bienestar de todas las personas presentes en el centro: usuarios y trabajadores. El equipo profesional podrá decidir que no participen personas que requieran cuidados personales específicos, o personas cuyas especificidades conlleven el aislamiento de sí mismas y del/la propia educadora/or.

Arreta pertsonalizatuko zerbitzua eta Gaztelekuko espazioa ez daude zuzenduta ez gaituta zainketa mediko eta sanitarioetarako.

El servicio de atención personalizada y el espacio del Gazteleku no están dirigidos ni habilitados para los cuidados médicos y sanitarios.

Baldintza hauek publikoak dira eta Gazteen Zerbitzuan zein Gaztelekuan eskura daitezke.

Esta normativa de uso es pública y estará disponible en Gazteen Zerbitzua y en el Gazteleku.

Gazteen Zerbitzua

Javier Ugarte, 6
943 644 752 / 688 728 057
gib@hondarribia.eus
Astelehena ostirala: 16:30 – 20:00

Gaztelekua

Molla Pasealekua, 1
688 72 82 46
Hondarribia
saindua@hondarribia.eus

Hondarribian, 2025eko azaroaren 24ean
Elektronikoki sinatutako dokumentua/Documento firmado electrónicamente
Zinegotzi delegatua/El/La concejal/a delegado/a
Izp./Fdo.: Lupe Queiruga Oronoz